



Pello Lizarralde dioenez, aurretik idatzi dituen liburuei jarraitzen die lan berriak ere. JULIAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

«Inportanteena anbizioa da; ezin da edozer gauza idatzi»

Pello Lizarralde susmoen eta zalantzen gaineko istorioa harilkatu du 'Orbanak' bere azkeneko eleberrian

Aurreneko aldiz, bi ahotsen bidez kontatu du istorioa, ihesaldi baten kontakizuna

Mikel Lizarralde Donostia

Zalantzatik abiatuta eta zalantza heiburu. Horrela idazten du Pello Lizarralde (Zumarraga, Gipuzkoa, 1956). Literaturaren bidez erantzunak bilatu edo emateko tentazioan erori gabe. Arazoak edota gaitzei irtenbidea emateke. Galderak egiten. Eta zalantza horien gainean eraiki du *Orbanak* bere azken nobela ere (Erein). Susmoaren inguruan. *Larrepetit* (2003) idatzi zuenean agerian gelditutako hari batzuei tiraka, kezka bat sortu zitzaion Lizarralderi, eta horrek eraman du liburu berriari: «Kezka hura bi norabidekoa zen; lehenengoa nire baitara zihon zuzenean, eta bigarrenak kanpora jotzen zuen, besteengana. Niregana heldu zenak aspaldian daukadan joera gaizto bat erakusten eta azpimarratzen zidan: lagun hurkoa azkarregi epaitzekoa; besteak, inguruan ikusten ditudan askoren artean ikaragarri zabaltzen ari den justizia egiteko eta zigortzeko egarri hori».

Orbanak-ek ihes bat du abiapuntu. Hilketa bat gertatu da. Herriko fabrikari lan egiten duen in-

geniari aleman baten emaztea hilik azaldu da pagadi batean. Irakurleak ez daki iheslariaren izena, ezta hura hiltzailea den ala ez. «Horrek zailagoa egiten du irakurketa», Lizarralderen iritziz, «susmagarria izateko arazoak ere badaudelako. Baina, hala ere... *Hala ere* horretan hasten da liburuak». Istorioaren hariak eman dezakeenaren kontrara, Lizarralde ez dio utzi bere liburuari genero nobelaren kanonetan jausten. «Jarriko banintz nobela beltz bat idazten, huts egingo nuke», aitortu du. «Badaude konbentzio batzuk, eta niri ez didate balio idatzi nahi dudana idazteko. Eta hau ez da nobela beltza edota thrillerra, inondik ere».

Iragaitzaz (2008) aurreko nobela bezala, tentsioa da liburu berriko elementuetako bat. «Baten batek esango luke liburu hartan ez zegoela ezer. Ze gorabehera, ze etorri, ze ibili... deus ez dago. Baina, era berean, tentsio handia dagoela iruditzen zait niri. Honetan ere badago tentsioa, konbentzionlagoa agian, baina ez diot horri lehentasuna ematen».

Iraganeko mundua eta iraganeko munduaren ikuskera presente

dira nobelan. «Askoren ustez mundu hori desagertua dagoen arren», mundu horrek, aldatuta bada ere, «gero eta indar handiagoa» duela uste du idazleak: «Inguratzen gaituena epaitzeko orduan, esaterako. Gauza oso larriak gertatzen ari dira. Auzitegi Nazionalak epaileak gutxi izan, eta ostatuetan ateratzen dira eguneroko dozenak». Lizarralde bera «harrunbe katoliko-katoliko» definitzen duen horren eraginak «izutu» egiten du. «Ez da batere arraroa entzutea 'halakok bizi arteko espetxea merezi du' edo 'hiltzea' edo 'eragindako kalte berbera jasotzea'. Eta lekurik gorenena hartuta, letagina zorrotz, distiratsu, ahotik ttu printzak botaz: 'nik horri zer egingo nioke...'. Horri aurre egiteko, sentimenduen ikuskizunak berdintzen ditu pertsonak: «Inor ez da libre piztiaz, eta hortxe dago beti, zelatan».

Narrazioa, biplanotan

Orbanak-ek aurretik idatzi dituen liburuei jarraitzen diela uste du egileak, aurretik idatzitakoari «kapitulu bat» gaineratu diola. Baina, hala ere, badu berritasunik, eta horietako bat da lehenengo pertsonan mintzo den narratzaile bat ere ageri dela eleberrian. Bi ahots edo planotan eraiki baitu nobela. Iheslariaren begi eta zentzumenetatik jasotakoa ahots objektiboz kontatu du idazleak, eta iheslariaren arrastoaren atzetik dabilenaren boza, aldiz, lehen pertsonan: «Nik neure burua sartu behar nuen hor, bestela ez baitze-

goen obra salbatzerik. Esaten da aukera moralak egiten direla».

Izan ere, idazten duenari garrantzi handia ematen dio Lizarralde. Ez horrenbeste formari: «Inportanteena anbizioa da, alde guztietatik. Idazten denean, ezin da edozer gauza idatzi, nahiz eta gero edozein gauza idatzi. Niri lan handia ematen dit erabakitzea zer idatzi behar dudun, eta oraingoan



Nobela beltzeko konbentzioek ez didate balio idatzi nahi dudana idazteko»

«Auzitegi Nazionalak epaileak gutxi izan, eta ostatuetan ateratzen dira eguneroko dozenak»

«Idazten ez dena ere liburuan dago, eta horrek lan handia ematen du»

PELLO LIZARRALDE
Idazlea

hala idatzi behar nuela ikusten nuen. Beharrezkoa zen». Lehen pertsonan idazteko lan handia dela deritza, «edozeinentzat», eta bera ere zaila egin zaio, «tonua bilatu behar delako». *Orbanak*-en gainera, lehen pertsonaren eta hirugarrenaren artean trantsizio moduko batzuk ere badaude, «ez batean ez bestean idatziak».

Lizarralderen aurreko liburuek

Zinematartzeko prest, «zuzendari ausarta» egokituz gero

➔ Bere liburuek zinematografikoak izan daitezkeela iradoki zitoten, atzo, Pello Lizarralderi, Donostian eginko aurkezpenean. Eta idazleak aitortu zuen «gustura» salduko litzukeela bere liburuetako eskubideak film bihurtzeko. Baina, edozein kasutan, zuzendariaren aletik «ausardia» nahiko luke. «Ez didate sekula eskaintzarik egin, baina inbidia ikaragarria sentitu dut inoiz Euskal Herrian egin den film ederrena ikusi eta gero: Imanol Rayoren *Bianak*. Ausardia hori nahiko nuke nik euskal literaturgintzan. Hori da nik nahi dudana zinema. Eta nik ausardia hori eskatuko nioke zuzendari bati. Ez dudalako ikusten nire liburu batean oinarritutako film bat zirkuitu komertzialean».

bezala, *Orbanak* ez dago geografía eta garai jakin batean girotua. Baina irakurleak aurkituko ditu «bizpahiru arrasto garbi samarrak» kontakizuna non eta noiz gertatzen den asmatzeko. «Ez zait eroso egiten herriak eta hiriak aipatzea, eta, oharrak emanda, izan daiteke kanta bat, film bat, auto marka bat, nahikoa izaten da egituratzeko pertsonaia nondik norra dabilzan».

Memoriarekin lotzen du hori Inaki Aldekoa Ereinek editoreak, iraganetik jasotako memoriarekin: «Denok ezagutu ditugun paisaia eta herri horiek hori daude. Unibertso literario eta moral bat dago, garai batekoa dena baina gureganaino iritsi dena. Guk geuk biziz duguna. Eta narratzaile horiek bizi eta ikusten duten kontuetan koherentzia izugarria dago».

Lizarralde sentsazio fisikoei ere ematen die garrantzia, eta fisikotasun hori transmititu nahi izaten du bere lanetan. Zentzumen bidez. «Askotan ez zaie garrantzirik ematen, eta haiek dira eraman eta ekartzen gaituztenak»

Idazten ez dena

Irakurleari azkartasuna aitortzen dio Lizarralde, lerroartearen irakurtzeko gaitasuna. Eta datuak, informazioa, dosifikatuta eman nahi izaten ditu. «Idazten ez dena ere liburuan dago, eta horrek lan handia ematen du. Noraino eman informazioa, zer ezkutatu, horrek ere eragin bat izan dezan... Hobe da laburtzera edo ezkutatzera jotzea. Horrek arriskua du, nahasmen eragin dezakeelako, baina uste dut merezi duela». Irakurketa saiaturia eskertzen du idazleak, eta bere liburuetara jotzen duen irakurleak «saiatu» egin behar duela uste du: «Liburua erosi aurretik badaki, eta, bestela, 0 liburu hartu orduko oharritako da. Saiatzea eskatuko diola».